

HELDUEN EUSKALDUNTZE ALFABETATZEAREN HERRI MUGIMENDUA

Joxe Jabier Iñigo

Herri mugimenduaz dihardugarik¹ instituzioen eraginez sortu ez diren erakundeak hartu ditugu mintzagai. Artikulu honetan euskalduntze eta alfabetatze beharrei erantzuteko herritarrek beren kasa sortutako euskaltegi eta elkarten berri eman nahi dugu, oinarrizko informazio bat mundu hau ezagutzen ez dutenentzat.

Ez dira gisa berekoak, jakina denez, gaur egun eta azken hamarkadetan alor honetan lanean ihardun duten erakundeak. Batzu herri mugimenduak dira ohizko zentzuan: hedapen garrantzitsua daukate herriz herri eta beren lana herri dinamika garatuz daramate aurrera, hau da, irakasle eta ikasleek erakundearen funtzionamenduan eskuhartuz, gainerako hiritarrak euskalduntze eta alfabetatze prozesuan barneratzen saiatuz, eta herriko euskararen normalizazioan aktiboki eraginez. Hizkuntzaren berreskurapena ulertzeko eragatik eta ikasle kopuruaren aldetik duten pisuarengatik hauei eskaini diegu tarterik zabalena.

Horiez gain, ordea, bestelako euskaltegi edo elkarte garrantzitsu batzu ere badira. Bakan batzu modu guztiz enpresarialez eratuta dauden arren, gehienetan irakaslekoaren kooperatibak dira. Status juridiko-legalari baino, garrantzi gehiago ematen diogu horiek garatzen duten lan sozialari eta horregatik sartu ditugu guztiak herri mugimenduari buruzko artikulu honetan. Gainerakoan ere, parekotzat hartzen dira hemen herri mugimendu, mugimendu herritar, gizarte ekimen eta antzerako kontzeptuak, antolakuntza eta funtzionamendu erizpideen gaineratik, herritarrek beren ekimenez bultzatutako ahalegina nabarmentzea interesatzen zaigulako. Zentzu horretan, aipamen garrantzitsua merezi dute erakunde publikoetan (HABE nahiz Nafar Gobernuako HEIn eta udal euskaltegietan) funtzionariaren betebeharrak hutsen gaineratik dihardutenek.

Historia apur bat

1966. urtean sortu zen euskalduntze-alfabetatze mugimendua, zenbait herritan alfabetatze taldeak eratu zirenean. Hasieran Alfabetatze Mugimendu gisa hedatu zen, baina berehala euskalduntzearen indarra gero eta handiagoa izango da. Rikardo Arregi izan zen garai hartan aintzindari eta mugimenduaren animatzaile nagusia.

1972an, nolabaiteko antolamendua eman nahian edo, Euskaltzaindiak bere baitan hartu zuen mugimendu hau eta Jagon sailaren barnean kokatu. Garai hartako antolakuntza era herrialdez herrialdekoa zen eta inolako loturarik gabekoa Euskal

Herri mailan; herrialde bakoitzaren barnean ere oso lotura eskasa nabari zen. Bestalde, ez da hedakuntza bateratsua gertatzen, Araban eta Nafarroan oso jende gutxi iharduten bait du.

1974-75 ikasturtean oso gora jo zuen ikasle kopuruak eta gizartean eman zen iratzartzearen eraginez berehala hasi zen alfabetatze eta euskalduntzearen garrantzia baloratzen Euskal Herriko sail zabalengan. Baina guzti horrek desoreka larriak eragin zituen mugimenduan, ez bait zegoen irakasle nahikorik, azpiegitura eskasa zen, baliabideak urriak, eta antola zitezkeen zerbitzuek ez zioten, ondorioz, zegoen beharrari inondik ere erantzuten. Mugimenduak ez zuen antolatzeko era egokirik eta horregatik hamaika ahalegin geratu zen bazterrean edota bere herriak kanpoko eraginik gabe.

74-75 ikasturtean Gipuzkoako Gau Eskolen Elkarte sortu zen. 1976ko abuztuan Bizkaian Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea sortzea pentsatu zen, Euskal Herri osora hedatzeko eta arlo honetan ziharduten talde guztiak koordinatzeko asmotan. Urte haietakoak dira Gipuzkoan eta Bizkaian -are eskualde mailan ere- egituratzeko lehendabiziko saio emankorrak. 76-77 ikasturtean egin ziren bi herrialdeen arteko lehenengo bilkurak. Oraindik Euskaltzaindiaren barnean lan egiten zelarik, akademiak 77ko udan onetsi zuen lehenagoko Alfabetatze Batzordea izenaren ordean berria, AEK alegia.

Ordurako beste euskaltegi eta erakunde batzuek ere hasiak ziren beren kasa helduekin lanean. Donostian Ilazki euskaltegia eta Bilbon Ulibarri 76-77 ikasturtean hasi ziren lehendabiziko eskolak ematen. Azken hau AEKrekin koordinatua egon zen Euskaltzaindiaren barnean egon zen bitartean, baina 1980an eten zituen AEKrekiko loturak. Bizkaian, Labayru Ikastegia ofizialki sortu 1977an egin zen, baina dexente lehenago, 1970an hain zuzen, hasia zen lehendabiziko ikastaroekin eta betiere alfabetatzean murgildurik.

70eko hamarkadaren bukaeran Hego Euskal Herrian erregimen autonomikoak instituzionalizatze bidean jartzeak berebiziko eragina izan zuen AEKren garapenean, koordinakundean alde guztietako eritziak bait zeuden Eusko Kontseilu Nagusiak (Eusko Jaurlaritzaren aurreko organu autonomikoa) eta Nafarroako Diputazioak euskararen berreskurapenean orohar eta helduen euskalduntze eta alfabetatzean bereziki jokatu beharko zuten paperaz. Euskaltzaindiak Eusko Kontseilu Nagusiak AEK bere magalean hartzea nahi zuen. Gobernu autonomikoak instituzionalizatze proposamen bat egin zuen eta baita AEK kontraproposamen bat aurkeztu ere, nagusiki honako puntuak oinarri harturik: lurraldetasuna, publikotasuna eta barne demokrazia. Erantzun horren aurrean gobernuak eten egin zituen harremanak.

1980ko abenduan burutu zen lehendabiziko Korrika garaian areagotu egin ziren Euskal Kontseilu Nagusiko harremanen ondorioz mikaztuta zeuden Euskaltzaindia eta AEKren arteko desadostasunak. 1981eko udaberrian Jagon sailak AEK Euskaltzaindiatik kanpo uztea erabaki zuen eta urte bereko ekainetik aurrera AEK ofizialki izango da erakunde autonomoa. Urte horretan bertan Ipar Euskal Herriko gau eskolek AEKn koordinatzeko erabakia hartu zuten.

1981eko udazkenean bertan, euskarazko eskolak ematen hasi zen HARE: Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea, Eusko Jaurlaritzak sortutako

erakunde publikoa eta AEKn aritutako partaidez osatua neurri oso garrantzitsu batean.

Ikaslegoaren bilakaera

Ezinezkoa da 1966. urtetik gaur bitarteko ikaslegoaren datuak eskaintzea eta zer esanik ez matrikula kopuru eta eskola orduen berri lortzea. Hasiera hartako daturik ez dago bilduta, gutxi batzuk izan ezik. Gerora, ez HABEk ez Nafar Gobernuako Hezkuntza Sailak ez dituzte sortu ziren garaitik gaurdainoko datu denak argitaratu oraindik eta kasu batzutan eduki ere ez dauzkatela dirudi.

Argitaratu diren datu guztiak gainera, ez dira guztiz fidagarriak: batetik, administrazioek ezartzen dituzten baldintzak direla medio, horiek betetzen ez dituzten ikasleak estatistiketan ez dira azaltzen, eta euskaltegi eta erakundeek ez dute normalean ikaslegoaren bilakaeraren segimendu zehatzik; bestetik, euskalduntze prozesuan diharduen milaka maisu-maistra edo irakaslegai (Euskal Autonomi Elkarteko Irale programaren baitako asko zein Magisteritza ikasten ari direnak esate baterako) ez dira inondik ageri; azkenik, datu ofizialetan ikasle kopuru bezala agertzen direnak errealki matrikula kopuruak dira, eta Bizkaian esate baterako, 86-87 ikasturterarte euskaltegi libreetako ikasle bakoitzak 3 matrikula egin ohi zituen ikasturtean zehar. Beherago dagoen taulan ikasturte horretan eta hurrengoan ageri den ikaslego jaitsiera ez da, beraz, erreala, matrikulak egiteko sistemaren egokitzearen ondorio administratiboa baizik, neurri handi batean. Euskal Autonomi Elkarteko hasierako urteetako datu hazkundera ere ez da erreala, ez hainbestereinokoa behintzat: benetako ikasle kopuru handitzea baino erregularizatze administratiboko prozesuaren ondorioa da. Horregatik, eta datuen iturrietan bertan ageri diren oso kontraesan garrantzitsuengatik kontu handiz irakurri eta interpretatu behar dira datuok.

Beste zehaztapen bat ere egin beharra dago: ikasle edota matrikula kopurua behera joan arren, badirudi gero eta klase ordu gehiago ematen dela urtez urte, hau da, ikastera datorren jendea modu trinkoagoz heltzen dio ikasprozesuari. Ikastorduei buruzko daturik, ordea, oso partzialki baino ez dago eskuratzerik, eta horregatik ez ditugu hona ekarri.

Hemen 1981-82 ikasturtetik 1990-91 bitarteko ikaslegoaren datuak bildu ditugu. Izan ere, lehendabiziko datu osoak (edo ia osoak) 80ko hamarkadatik aurrerakoak dira. Datuok 91-92 ikasturteko uda amaitu aurretik eskuratu ditugunez ikasturte horretako datuak ez datoz jasota.

Hemen ikaslegoaren bilakaeraren taula 81-82/90-91.

Taularen oharrak:

1.- Euskal Autonomi Elkarterako HABE da datu iturri nagusia. Hauetxek dira argitaratu dituen datuak: *Euskal Herria Berreuskalduntzen: Ikasleen datuak 81-82 ikasturtea, HABE: 1984. urteko ekitaldia, HABE: 1985. urteko ekitaldia, HABE: 1986. urteko ekitaldia, HABE-Memoria 87 eta HABE-Memoria 88*; azkenik, *Zutabe aldizkariak 16. zenbakian 1986-87 ikasturteko helduen euskara-irakaskuntzaren datuen azterketa argitaratu zuen*. Dena den, HABEk laster batean dauzkan datu guztien bilduma zehatz bat argitaratu behar omen du. Bestalde, Eustat-ek (Euskal Autonomi Elkarteko estatistika erakunde ofiziala) argitaratu dituen urtekari estatistikoetan 81-82 ikasturtetik 90-91 bitartekoak ageri dira 87-88koak salbu, baina inoiz ez dira bereizten alfabetatze eta euskalduntzeari buruzko datuak. Hala ere, nahiz eta Eustatek bere datuen iturri gisa HABE aipatu kasu guztietan, bien arteko datuak ez datoz sekula bat, eta aldeak kasu batzutan ikaragarriak dira. Bestalde, inongo kasutan ez dira ageri Hizkuntz Eskola ofizialetako ikasleak.

2.- Ipar Euskal Herriko datuak AEKrenak dira. Izan ere, Iparraldeko euskaltegi eta gau eskola ia guztiak AEKko partaide dira. IKAK 90-91 ikasturtean 9 ikasletako talde bat izan zuen Saran eta hurrengo ikasturtean ere bai. Kopuru hori ikasturte horri dagokion datuan baturik dago jadanik.

3.- Nafarroako datuak Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduko Euskara Zerbitzuak eskainiak dira, 81-82, 82-83 eta 83-84 ikasturteetako AEKren datuak salbu. Kasu hauetan iturria AEK bera da. Litekeena da ehundaka ikasle batzuek gehiago izatea hiru ikasturte horietan Nafarroan, auzo elkarte eta bestelako erakunde batzuek emandako eskoletan, baina horiei buruzko datu ofizialik ez dago inon. Azpimarratzekoa da 91-92 ikasturtean lehendabiziko aldiz lau mila ikasletik gora izan dela Nafarroan euskara ikasten, 4732 lagun hain zuzen ere. Nafarroari buruzko datu guztietan Hizkuntz Eskola ofizialekoak ere sartuta daude. Ezinezkoa izan da alfabetatzea eta euskalduntzeari buruzko datuak bereizirik lortzea.

4.- Guztizko datu hauek herrialde bakoitzaren baturak gehituz atera ditugu. Alfabetatzea eta euskalduntzeari buruzko datuak ez ditugu eskaini Euskal Autonomi Elkarteko 81-82, 86-87, 87-88, 88-89, 89-90 eta 90-91 ikasturteei eta Nafarroari buruzkorik ez dagoelako.

5.- Datu hauek Eustaten 1985eko urtekaritik hartuak dira. Datuok 1983ko urtekarian eta HABEren 1981eko liburuan ere ageri dira baina ez dago hiru iturrion arteko batere parekotasunik. EUSTATen 1985eko urtekariko datuak aukeratu ditugu ustez aurreko argitalpenetakoak zuzenduko zituztelako. Inongo kasutan ez da alfabetatze eta euskalduntze datuen arteko bereizketarik egiten. Bestalde, HABEren hasierako urteetako datu hauek ez dute errealitatea isladatzen: ikasle kopurua handiagoa zen estatistiketan jaso ez arren; urte horietako ikasle igoera, beraz, ez da ageri den bezainbatekoa.

6.- Datu hauek Eustaten 1983 eta 85eko urtekarietan ageri dira eta ez datoz bat.

Baturetarako 85eko urtekarikoak ekarri ditugu hona errebisatuak direlakoan, baina urtekari horretan alfabetatzen eta euskalduntzen aritutako ikasleak bereizten ez direnez, bi atal horietako datuak 83ko urtekarikoak dira. Ikusten denez, desegokipena milaka ikasletakoa da kasu guztietan.

7.- Azken baturak HABEren 84ko memoriatik (*HABE 1984. urteko ekitaldia*) hartu ditugu, baina hemen ez dira alfabetatzea eta euskalduntzea bereizten. Datu partzial horiek Eustaten 1984ko urtekaritik hartu ditugu, baina bataren eta bestearen guztizkoak ez datoz bat.

8.- Datu hauek Eustaten 85ko urtekariak eta HABEren *85. urteko ekitaldia* izeneko memorian argitaraturik daude, baina ez datoz bat. Garai beretsuko argitalpenak direnez eta Eustatekoak alfabetatzea eta euskalduntzea bereizten ez dituenaz HABEren memoriakoak onetsi ditugu. Dena den, batetik besterako aldea izugarria da, milaka ikasletakoa.

9.- Beste horrenbeste: HABEren 86ko memoriako datuak ekarri ditugu hona Eustaten 86ko urtekarikoak albo batera utziz. Bien artean eta EAEren osotasunerako 15.084 ikasletako aldea ageri da.

10.- HABEren 87ko memoriak eta ondorengoek ikasturteko datuak eskaini beharrean, ordurarteko memoriak bezala, berezko urtearen datuak ematen dituenaz, guztizko datuak Eustaten 87ko urtekaritik hartuak dira, baina hor alfabetatze eta euskalduntze datuak ez dira bereizten.

11.- 1988. urteko Eustaten urtekariak 87-88 ikasturteko datuak eskaini beharrean 86-87koak argitaratu zituen berriz. HABEren 88ko memoriak ikasturteari buruzko datuen ordeztuak naturalekoak ematen dituenaz, datu hauek HABEtik eskuratu ditugu zuzen zuzenean, baina euskalduntze eta alfabetatzearen arteko bereizkuntzarik gabe. Hauek dira HABEK zuzenean eskaini nahi izan dizkigun datu bakarrak.

12.- Datu bakarrak Eustaten urtekariak argitaraturikoak dira, HABEK ez bait du geroztik memoriarik argitaratu. Aipatu denez, Eustatek ez ditu bereizten alfabetatze eta euskalduntze datuak.

Beste datu sorta interesgarria euskaltegi publikoetan zein publiko ez direnetan izandako ikaslegoaren bilakaera da. Jakina denez, Euskal Autonomi Elkartearen bi sare publiko dago: HABE beraren euskaltegiak eta udalen esku daudenak. Herri ekimenez sortutakoak tratamendu desberdina ezagutzen dute, kasu batzutan betetzen dituzten baldintzen arabera eta beste batzutan Kultura Sailaren eritzi arbitrarioen ondorioz: hitzarmenezkoak, homologatuak zein libreak izan daitezke. Nafarroan publikoak ez diren euskaltegiek ez dute elkarren arteko diskriminaziorik jasaten. Iparraldean ez dago euskaltegi publikorik, guztiak herri ekimenez sorturikoak dira.

Ondoko grafikoan batu egin ditugu publikoak batetik eta herri ekimenez sortutakoak bestetik. Hitzarmenezkoak azken multzo honetan sartu ditugu, horietarikoetan dabilzan ikasle gehienak herri ekimenez sortutakoetan ari direlako, baina batzuk publikoetan ari dira; hala ere, ez HABEren ez Eustaten estatistikek ez dute horren berri ematen. Antzerako zerbait gertatzen da euskaltegi homologatu eta libreekin. Esan ohi da euskaltegi libreak AEK edota IKAKoak direla, eta halaxe da neurri handi batean, baina erakunde hauek euskaltegi homologatuak ere badituzte: euskaltegi homologatuen herena, esate baterako, AEKkoa da. HABEk argitaraturiko datuek ñabardura guzti horiek adierazten ez dituztenez bereizketa nagusia soilik kontutan hartzea erabaki dugu: publikoa eta ez publikoa.

EAEko sare publikoak 81-82 ikasturtetik 85-86 bitartean ezagutzen duen gorakada sarearen beraren zabalkunde eta finkatzearen ondorio da. Azken urteetako igoerak batez ere administrazioan eta gainerako ente publikoetan ezartzen ari den hizkuntz perfilen planarengatik ikasprozesura biltzen den funtzionari kopuruaren ondorio dira, neurri handi batean. Sare ez publikoan 86-87 eta 87-88 ikasturteetan ageri den ikaslego jaitsiera, Bizkaian ikasle bakoitzak urtean hiru matrikula egitetik bakarria egitera pasatzearen islada da, batik bat.

Ikaslegoaren eboluzio grafikoa: urtez urte eta publiko/ez publiko bereziz

Taularen oharrak:

- 1.- Taula honetako datu iturriak aurreko taulako herrialde bakoitzeko guztizko datuak hartzeko erabili ditugun berberak dira. Ikus, beraz, hango oharrak.
- 2.- Hizkuntz Eskola ofizialetako daturik ez da hemen ageri, argitaraturik ez dagoelako.
- 3.- Nafarroari buruzko datu hauetan Nafar Gobernuaren eta Hizkuntz Eskola ofizialaren datuak sartu ditugu.

Euskaltegi eta erakundeak²

Gorago azaldu bezala hemen herri ekimenez sortutako erakunde eta euskaltegien berri emango dugu. Baina azpimarratzekoa da helduen euskalduntze eta alfabetatzean beste erakunde garrantzitsu asko ere badagoela. Bai Eusko Jurlaritzak bai Nafar Gobernuak erakunde ofizial bana sortuta daukate: HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) Euskal Autonomi Elkartearen eta HEI (Helduen Euskalduntzerako Ikastegia) Nafarroan. HABEK eskolak emateaz gain gainerako erakunde publiko zein herritarren iharduna arautu eta kontrolatzen duen erakundea da. HEIk berriz, ez du horrelako kompetentziarik eta euskaltegi gisa funtzionatzen du. HABEko euskaltegietan 1500 ikasle inguru ibili dira aurreko ikasturtean eta HEIn 500.

EAEEn sare publikoaren beste zutabe garrantzitsua udal euskaltegiarena da: guztira 42 dira. HABEren babesaz eratzen dira euskaltegi hauek eta Gipuzkoan eta Bizkaian oso zabaldurik daude. Araban bakarria dago, Laudion hain zuzen, baina oraintsu arte Audioko euskaltegia AEKn koordinaturik ere ibili da. 90-91 ikasturtean 13.617 ikasle ikasi zuen udal euskaltegietan.

HABEK publiko izan nahiz pribatu diren hainbat erakunderekin hitzarmen bereziak sinaturik dauzka. Atal honetan nabarmentzekoak dira unibertsitate hainbatekin sinaturik dauzkanak: Deustuko unibertsitatea, EUTG eta UNED. Hitzarmenezkoak dira, era berean, Maizpide eta Begoñako Andra Mari Derioko Seminarioa. Oraingoz HABEK ez du beste inorekin hitzarmen berezirik sinatu nahi izan. Hitzarmenezko euskaltegietan 2.653 ikasle ihardun zuten iaz.

Horietaz gain beste hainbat lekutan ere badihardute helduak euskalduntze edota alfabetatzen: EAEko eskola publikoetako maisu-maistra ugari dabil IRALE izeneko programan -eta horietariko batzuk besterik ez dute ikasten euskaltegi publiko edo homologatuetan-, Magisteritza Eskolek ere euskalduntze klaseak ematen dizkiete

sartzen diren ikasle erdaldun guztiei, Nafar Gobernuak ehundaka funtzionari dauzka berak zuzenean ematen dituen klaseetan, Hizkuntz Eskola Ofizialak, etabar.

Gaur egun desagertua dagoenez ez dugu hemen *Aurten Bai* kanpaina iraunkorraren berri zehatzik eman, baina bi hitz merezi ditu. Bizkaian sortua bost urteko epe baterako (1986-91) Aurten Bai elkarteak hitzarmen berezia sinatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiarekin. Milaka ikaslek ihardun zuten bereziki prestaturiko metodologiaz alfabetatze ikasprozesuan. Oso ekimen txalogarria izan zen alfabetatzea bezalako arloari egindako eskaintza bereziagatik eta ahalegin horretarako ezarri ziren bitartekoengatik. Baina alderdi ilunak ere izan zituen: euskalduntze alfabetatzean diharduten gainerako erakundeei itxia, sekula ez ziren oso garbi egon ekimen horren nondik norako guztiak, eta gainera diskriminazio garbia suposatu zuen alfabetatzean diharduten gainerakoekiko. Kritikagarriena seguraski kanpainaren balantzean egindako balorazioa izan zen: azken ikasturtean oso-oso ikasle gutxi matrikulatu zela Bizkaian euskaldun guztiak ordurako alfabetaturik zeudelako.

Sarrera honekin amaitzeko EKBko Euskalduntze eta Alfabetatze Sailaren berri eman beharra dago. Bertan herri ekimenez sortutako euskaltegi eta erakunde asko koordinatzen dira, eta publiko batzuk edo publikoetan dabilzan irakasleak ere bai. Sail honek ez du antolakuntza ofizialik; lan ildo jakinen inguruan biltzen ditu unean unean elkarlanerako prest daudenak. 1990eko maiatzean Euskalduntze Alfabetagintzaren I. Ihardunaldiak³ antolatu zituen Leioan eta arlo honetan ari diren ia guztiek hartu zuten parte. Geroztik alfabetatzean eta irakaslegoaren prestakuntzaren alorrean ihardun du sail honek. Berriki, EKB eta Euskal Herriko Unibertsitatea-UPVren Hezkuntzaren Teoria eta Historia Departamenduaren arteko hitzarmen bat sinatu da *Euskalduntze eta Alfabetatzerako Diplomatura* indarrean jartzeko 92-93 ikasturteetik aurrera. Diplomatura horren bultzadan euskaltegi eta erakunde gehienak hartzen ari dira parte.

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK)

Erakunde honen sorreraz gorago hitz egin dugularik, azal dezagun segidan AEKk gizarte mugimendutzat bere burua definitzeko zer hartzen duen izaera herritarraren oinarri:

- Dinamizazio herritarra gauzatu herritarron kontzientzia eta motibapenetan eraginez.
- Zerbitzu publikorako borondatea: auzo eta herri guztietan eta Euskal Herri osoan antolatuz, dohantasunerako bidean behar soziolinguistikoei erantzuteko borondatea.
- Eredu parte hartzailea bultzatu, irakasle, ikasle eta laguntzaileekin, kudeaketa demokratikoa bermatuz elkartearen maila guztietan.

Euskalduntze alfabetatzean 1990. urterarte orokorra izan den ikaslego jaitsieraren ondoren AEK gorantzako joera izaten ari da azken ikasturteetan: 1990-91 ikasturteko 11.800 ikasletik 13.000ra pasatu da 91-92 ikasturtean, hauetatik 650 alfabetatzen. AEK da bi urtean behin egiten den *Korrika* euskararen aldeko ekitaldiaren antolatzailea.

Euskal Autonomi Elkartearen badauzka AEKk ikasgu libre eta homologatuak, nahiz eta ez duen onartzen administrazioak homologaziorako gaur egun ezarririk duen planteamendua: edozein titulu unibertsitariotan oinarritua eta ez hizkuntzen irakaskuntzarako prestakuntza. 183 eskolatatik 13 dauzka homologaturik, gehienak "libre" deritzanak dira eta gutxi batzuek subentziorik txikiena ere ez dute jasotzen "libre" izateko HABEk ezartzen dituen gutxienezko baldintzak (gutxienez 48 ikasle izatea) betetzen ez dituztelako.

AEKren ustez administrazioaren politikak orokorrean ez du kontutan hartu helduen euskalduntze alfabetatze mugimenduko partaideen eritzia eta gehienetan horien aurka joan da. Euskal Autonomi Elkartearen bereziki, sakabanaketa eragin du zentruen arteko sailkapena bultzatzean: publikoak (udal euskaltegiak eta HABErenak), pribatuak (homologatuak eta libreak) eta hitzarmenezkoak. Administrazioak diskriminazioa ere eragin du zentru publikoen lan baldintza egokien ondoan, beste euskaltegi guztiak laguntza nahikorik gabe utzi dituelako eta bereziki libreak guztiz baztertu dituelako. AEKk salatzen duenez, administrazioak ikasguen gaineko ikuskatzailetza bultzatu du indartsuki, baina ez du motibazio kanpainarik bultzatu, ezta irakaslearen prestakuntzarako bideak, irakaskuntza eraginkorrago egiteko ikerketak eta laguntza bideak, behar bereziei (guraso erdaldunak, alfabetatze bereziak,...) zuzendutako eskaintzak eta erabilpena bermatzeko bideak ere, besteak beste. Elkarte autonomo biek helduen euskalduntze eta alfabetatzea beste sailerako lanarekin uztartuko duen Plangintza Orokorrik eza nabaria da eta ondorio larriak dakartzana gainera.

Administrazioak funtzionarien euskalduntzea ari dira bultzatzen, kasu batzutan oso inbertsio handiak eginez gainera, baina beste giza sail batzuek ahazten ari dira: gurasoak, gazteak, lan mundua,... Ondorioz, sail horietan matrikulen beheruneko joera nabari da. Jaitsiera horri herri ekimenak egin behar izan dio aurre bitarteko urriz eta, EAEn behintzat, HABEren arautegi estuen gaintik (ezohizko erritmoak onartzeko, gutxienezko ikasle kopuruak mugatuz hartuz, burokraziako epeak oztopatuz erabiliz,...); AEKren hitzetan esateko "borondate ezaren gaintik".

Guzti honen ondorioz, alor honetan dagoen arazorik nagusienetako bat elkarlanerako baldintza falta da AEKren ustez. Lehia giroak eta mesfidantzek galerazi egiten dute, hein handi batean, ekimen desberdinen arteko uztarketa eta eraginkortasuna. Elkarlanerako baldintzak sortzea oztopatzeko ardurak erakutsi du administrazioak eta herri mugimenduekin akordioetara iritsi ez izanarena ere bai; AEKren aldetik behintzat elkarlanerako prestutasuna erakutsi izan da behin eta berriz, bai administrazio ezberdinekin, bai euskalduntze alfabetatze saileko gainerako erakunde eta euskaltegiekin.

Azken zentzu horretan AEKk EKBren euskalduntze eta alfabetatze sailean lanean dihardu hor koordinatzen diren gainerako euskaltegi eta erakunde herritar zein publikoekin. Elkarlanean burutzeko bi ardatz bilatu dira sail horretan: irakaslearen prestakuntza eta alfabetatze mugimenduen indartzea. Hala ere, AEKren ustetan, proiektu horiek gauzatzeko orduan inplikazio handiagoa beharko litzateke guztien aldetik egoeraren premiei aurre egiteko.

Egoera are kezkarriagoa da euskalgintzako gainerako sailekiko elkarlana oso txikia baita euskalduntze alfabetatzean. EKBren bitartez lortu nahi da elkarlan zabalago hori, baina gaur egun oraindik oso gutxi aurreratu da sailen arteko

lankidetzan. Izan ere, sail eta elkarte bakoitzak bere kontura dihardu, koordinazioaren bitartez aurreratu zitekeenari duen balioa eman gabe. AEKren ustez puntu horretan aurreratzea ezinbestekoa da euskararen gaurko egoerari erantzuteko.

Ikas eta Ari (IKA)

IKA koordinakundea 89-90 ikasturtean sortu zuten ordurarte AEKko partaide izan ziren hainbat euskaltegi, gau-eskola eta euskal eskolek. IKAk Nafarroa eta Araban dihardu lanean, eta bereziki Iruñean, Gasteizen, Nafarroako iparraldean eta Arabako Errioxa eta Kanpetzun. Euskaltegi ezagunena Arturo Kanpion da, 1972. urtean sortua.

IKA koordinakunde gisa eratuta dago eta herri mugimendu baten funtzionamendua dauka. IKAn badira eskola homologatuak eta libreak ere (Arabian noski, Nafarroan ez bait dago horrelako bereizkuntzarik). Gaur egun 160 bat irakaslek dihardu IKAn lanean eta sortu zenetik gorantzako joera etengabea izan du hiru urteetan zehar: 89-90 ikasturtean 1776 ikasle, 90-91n 2312 eta 91-92an 2648 lagun izan ditu IKAk bere eskoletan.

Garrantzitsua da aipatzea alfabetatzeari IKAk ematen dion garrantzia alfabetatze kanpaina bereizien bitartez, lan berezia eginez eskoletara hurbiltzen ez diren euskaldunekin eta alfabetatzeko programa bereziak sortuz. Lurralde euskaldunetan euskalduntzeak hainako pisua hartzen du alfabetatzeak ikasle kopuruari dagokionez.

IKAren ustez Plangintza Orokorren premia larria dago euskalduntze alfabetatzean, euskalgintzako gainerako sailetan bezalaxe. Herritarrak euskalduntzeko zer neurri hartu beharko litzatekeen aztertu beharra dago eta denon artean (instituzio, helduen euskalduntze alfabetatzean ari diren taldeak, beste herri mugimendu eta indar sozialen artean) aurrera eraman.

Administrazioari dagokionez planifikaziorik eza azpimarratzen du IKAk. Instituzioek adabaki politika daramate baina ez dute hizkuntz politika bereizirik, hezkuntzan, osasungintzan edo industrigintzan eduki dezaketen bezala. Hori gutxi balitz, baliabide ekonomiko oso urriak eskaintzen ditu administrazioak alor honetan lanean dihardutenak laguntzeko.

IKAk beharrezkoa deritzo elkarlanari maila ezberdinetan: bai Plangintza Orokorra gauzatzeko bidean baina baita berehalako egitekoetan ere, sentsibilizazio kanpainak esate baterako. Dena den, IKAk aurrebaldintza gutxi ikusten du horretarako, errezelo historikoak ere badira, besteak beste. Euskalgintzako gainerako sailekin elkarlana egoki ikusi arren, are zailagoa iruditzen zaio IKArri euskalduntze alfabetatzean dihardutenen artekoa baino.

Labayru Ikastegia

Labayru Ikastegia alfabetatzean dihardu buru belarri. Bere lan esparrua Bizkaiko herrialdea da eta hedaturarik handiena 85-86 ikasturtean izan zuen: 18 herritan eman zituen eskolak. Azken ikasturteetan 6 herritan besterik ez du eman izan, Bilbo tartean. Labayru Ikastegiaren ihardunean garrantzi berezia dauka Derioko Udako Euskal Ikastaroa, aurten bere 23. edizioa egin duena hain zuzen ere.

1970ean 21 ikaslerekin hasi zen lanean eta kopururik handiena 1980ko hamarkadaren lehendabiziko 6 urteetan izan zuen: 500 ikasle ingurutik 1.024ra iritsi zen 85-86 ikasturtean. Geroztik euskalduntze alfabetatzeak orokorki jasan duen beherakada ere iritsi zaio Labayru Ikastegiari, eta 1990. urtean 227 ikasle izan du.

Labayru Ikastegia Fundazio Kulturala da eta alfabetatze eta euskara sakontzeko ikastaroak emateaz gain beste hainbat lan ere burutzen du: hizkuntzalaritza, didaktika eta literatura alorretan liburu ugari eman ditu argitara; Etnografia Sail bat ere badute ikerketa ugari burutzen dituen (besteak beste, *Euskalerriko Atlas Etnografikoa*); Labayru Euskal Biblioteka ere garrantzi handikoa da bere espezializazio mailarengatik.

Labayru Ikastegiak ez du eritzi ofizialik eman nahi izan euskalduntze alfabetatze alorrari buruz, alor honekiko administrazioaren politikaz eta sail barneko eta euskalgintzako gainerako sailekiko elkarlanari buruz.

Maizpide

Maizpide Euskaltegiak 1988an ekin zion lanari. Aurretik Goiherriko Euskal Eskolan aritutako langileek hartu zuten beren esku euskaltegi berria. Goiherriko Euskal Eskola 1977an sortu zen eta AEKko partaide izan zen 80ko hamarkadako lehendabiziko urteak arte.

Maizpide Euskaltegiaren jabetza Eusko Jaurlaritzarena da, eta 10 urtetarako utzia dio Maizpide Elkarte Kulturalari; funtzionamendurako, berriz, Kooperatiba Baltzu Mugatua osaturik daukate 20 bat irakaslek. Maizpide euskaltegi pribatu homologatua da eta HABErekin urtero urtero berritzen du hitzarmena. Barnetegia du ardatz, baina horretaz gain ordukako ikastaroak ere egunero ematen ditu.

1988-89 ikasturtetik aurrera 25-50 ikasle izan ditu Maizpidek alfabetatze klaseetan, baina askoz ere garrantzi handiagoa daukate euskalduntze ikastaroek. Hona urtez urteko ikasle kopuruak: 1.309, 1.751, 1.822 eta 1.750.

Administrazioarekiko harremanei dagokienez Maizpidek ez du aparteko arazorik izan HABErekin. Diru laguntzetan ere urteroko bizitzaren mailako igoera jaso dute, nahiz eta askotan, burokrasia arazoak medio, Maizpidek nahi eta uste baino beranduago eskuratu subentzioak.

Euskaltegiko funtzionamenduari dagokionez autonomia propioa daukate eta administrazioak beti errespetatu du beren autonomia eta baita sortu diren inizatibak ere. Dena dela, haxe da beren kezka: zer gertatuko da hemendik sei urtera, hau da, berrituko al da hitzarmena? Are gehiago, epe motzagoan ere, ez ote zaizkie beraiei ere diru-murrizketak iritsiko?

Ilazki

Donostiako Ilazki euskaltegia 1976. urtean sortu zen, eta nahiz eta izaera juridiko aldetik irakaslegoaren kooperatiba gisa legeztatuta egon herri mugimenduaren esparruan kokatzen du bere iharduna. Euskaltegi homologatu gisa dago inskribituta eta une hauetan 500 ikasletik gora du.

Ilazki euskaltegiak euskalduntze-alfabetatzean dabiltzanen arteko elkarlana garrantzitsua dela uste du. Euskaltegi homologatua izanik gainerako euskaltegi homologatuekin daukate harremanik estuenak, Bertan⁴ izeneko federakuntzaren bitartez. Momentuz elkarlanik handiena maila horretan gauzatzen badute ere euskalgintzan ari diren elkarte, talde eta gizabanako guztien arteko lana onesten dute eta beharrezkotzat jotzen.

Administrazioak euskalduntzearen plangintza egin beharko lukeela uste du Ilazkik. Beharrezkoa da instituzioak diru laguntzak ematera baino ez mugatzea. Euskalduntze alfabetatzearen gaiak zehaztu egin behar dira, bitartekoak ezarri eta epeak finkatu. Guzti hori sail honetan lanean diharduten euskaltegi eta erakunde guztiekin elkarlanean eraman beharko litzateke aurrera, eta horretarako Ilazki prest dago.

Altza, Monpas, Ortzadar-Kuluxka eta Rikardo Arregi-Urumea

Lau euskaltegi hauek Donostia eta Errenteria-Oregetan diharduen antolaketa bakarreko euskaltegi homologatuen taldea da. Lau euskaltegien artean ia mila ikasle biltzen dute.

Rikardo Arregi da lau euskaltegietan zaharrena, 12 urte ere bai bait du. Bera eta Ortzadar AEKko partaide izanak dira 86-87 ikasturtera arte. Monpas garai beretsuan sortu zen eta Altza pixka bat beranduxeago. Euskalduntze alfabetatze munduko beste euskaltegi batzurekin Bertan euskaltegi homologatuen federazioan daude koordinaturik.

Euskaltegien egituraketa, euskararen irakaskuntzari dagokionean behintzat, irakaskuntza erreglatuak markatzen duen bidetik eraman beharra nabaria da euskaltegi hauentzat. Euskararen irakaskuntza masa mugimenduen ataltzat planteatzea berriro errepika ezin daitekeen akats historikotzat jotzen dute. Bide beretik, uste dute nekez justifika daitekeela ikastolaren eta unibertsitatearen kasurako hartutako bideak profesionalizatzearenak izatea eta euskaltegien kasurako bestelakoak.

Euskaltegi talde honek irakasleen prestakuntzari eta ikasprozesua azkartu dezakeen didaktikagintzari ematen dio lehentasuna. Dena den, unibertsitateak honetan eskuhartu behar luke, helduen euskara ikaskuntz-irakaskuntz gaiak unibertsitate mailara eramanak ez izateak zalantza eta noraeza ugari sortzen duelako. Beste euskaltegi gehienek bezalaxe, baliabide murrizkak dituzte eta beharrezkotzat jotzen dute langilegoaren lan baldintzen hobekuntza, baina uste dute plataforma baten osatzeak eskatzen duen imaginazio eskuzabaltasunak ezin daitezkeela epe motzerako interesen menpe jarritz hankaz gora bota.

Euskalduntze-alfabetatzearen ahaleginak sektore guztien parte hartzea eskatzen du, udal euskaltegi, homologatu, libre eta euskaltzale ororena. Zentzu horretan, euskalgintzan ari diren beste organismoekin egintza bateratuan lan egin beharra azpimarratzen dute lau euskaltegi hauek.

Legazpi-6

1987an sortu zuen Legazpi-6 euskaltegia lehenagoko CIM akademiako irakasle talde batek. Kooperatiba mugatua da baina irakasle gehienak kontratatuak ditu. Guztira 10 bat irakasle dira eta 500 ikasletik gora daukate. Euskaltegi homologatua da eta Bertan-eko partaidea.

Euskararen normalizaziotik eta euskalduntze alfabetatzean dabilzanen interesetatik ikusita elkarlanak berebiziko garrantzia hartzen du Legazpi-6ren ustetan. Administrazioaren politikak euskaltegi eta erakundeen dinamika erabat baldintzatzen duela uste dute eta, hein handi batetan, lotuta sentitzen dira, diru iturri garrantzitsuena bera delako. Gainera, baliabide ekonomikoak ez dira nahikoak eta horrek ere eragiten du elkarlanari eskaini beharreko dedikazioa ez bait da inondik ere nahi hainakoa. Oso garrantzitsua deritzote euskalgintzako talde guztien arteko hurbilketari dinamika sozio-kultural egokia eratzeko. Elkarren arteko harremanak gehiago lantzearen garrantzia azpimarratzen dute.

Urrats

1988-89 ikasturte hasieran sortu zen Donostiako euskaltegi homologatu hau eta kooperatiba gisa dago legeztatua, nahiz eta irakaslegoaren erdia baino gehixeago kontratatua izan. Sortu zenetik hona 300 ikasle gertu izan ditu batz bestea.

Urrats euskaltegiaren ustez euskara ikasteko motibazio aldaketa egon da. Gaur egun ilusio galtze bat gertatu da eta praktikotasunagatik -arrazoi profesionalengatik batik batik biltzen da jendea ikasprozesura. Horrek eta administrazioak ezarritako baldintzek eragin dute gaur egun euskalduntze alfabetatzean eman behar izan den egokipena.

Administrazioaren helburua euskalduntze alfabetatze mundua normalizatzea izan bada ere, horretarantzko pausoak emateko era guztiz kritikagarria da Urratsen ustez, inposatua eta goitik behera ezarria izan delako. Lorpenak egon dira baina huts egiteak ere bai: euskaltegiak ez daude oraindik egoera normalizatuan, lan baldintzak eskasak dira,...

Elkarlana beharrezkoa dela uste du Urratsen. Zentzu horretan Bertan federakuntzan hartzen du parte, baina euskalgintzako gainerako sailekin ere lankidetzan iharduteko prestutasuna adierazi dute, beren ahalmenen baitan.

Hitzez

1988an sortu zen Donostiako Hitzez euskaltegia. 300 bat ikasle dauka eta 14 irakaslek osatzen dute. Kooperatiba gisa dago eratu eta euskaltegi homologatua da.

Hitzezen ustez asko aldatu da azken 10 urteetan ikaslegoa. Gaur egun % 85a lan arrazoiengatik etortzen da, nahiz eta gustora etorri; % 15 haurrekin hitz egin ahal izateko ikastera datozen gurasoak dira -amak batez ere-, eta gainerakoak kontzientzia euskaltzaleagatik.

Administrazioak erabaki dituen baldintzak euskaltegien eskuhartzerik gabe ezarri dira eta Hitzezen ustez euskaltegi eta erakunde ezberdinek zeresanik eduki beharko lukete horretan.

Bertan-eko kidea da Hitzez eta oso positibotzat jotzen du euskaltegi homologatuek beren statusa lortzea. Euskalduntze alfabetatzean dabilzanen arteko harremanak gero eta estuagoak dira eta aurrerantzean ere euskalgintzako gainerako sektoreekiko elkarlana ere gauzatuz joan ahal izango da. Hori dela eta, EKBren papera beharrezkoa dela uste dute.

Hegoalde

Gasteizko euskaltegia da hau, homologatua, eta 1985ean sortua. Bertan-en barruan dago. Herri mugimenduko enpresatzaletzat jotzen du Hegoalde bere burua. Une honetan 21 irakaslek dihardu lanean eta 500 bat ikasle daukate.

Hegoalderen ustez aurrerapausu nabariak eman dira euskalduntze-alfabetatzean azken urteetan, eta hori Gasteizen bereziki nabarmentzen dute. Administrazioaren jarrera positiboki baloratzen du Hegoalde, baina aurrerantzean positiboagoa izango dela espero du, oso garrantzitsua bait da ekimen honek behar duen laguntza.

Hegoalderen ustetan euskalduntze alfabetatzean hasiak dira elkarlanaren lehendabiziko urratsak, eta ez dute oztopo bereizirik ikusten bide horretan egindakoa areagotzeko.

Oharrak:

1.- Euskararen normalizazioaren alde diharduen herri mugimenduaren berri eman nahi duen artikulua multzo baten parte da haxe. *BAT* aldizkari honen aurreko zenbakian argitaratutako beste artikulua batekin eman zitzaion hasiera sorta honi, Koro Zumalabereren "Herrietako euskara elkarteak" izenekoarekin hain zuzen ere. Hurrengo zenbakietan gizarteko gainerako sailetan dagoen egoera azaltzen jarraituko dugu: irakaskuntza, administrazioa, unibertsitatea, gizarte zerbitzuak, komunikabideak,...

2.- Segidan doazen informazio gehienak erakunde edo euskaltegi bakoitzak bidalitakoak dira alde aurreko galdetegi bati erantzunez. Galdetegian honako gaiak plazaratu zaizkie: sorrera, izaera, ikasle eta irakaslegoari buruzko datuak eta datuen

bilakaera, eta euskalduntze-alfabetatzeari, euskararen normalizazio prozesuari, administrazioen politikari eta elkarlanari buruzko eritzi orokorrak. Erantzunak bere horretan ekarri ditugu hona, erredakzioko egokipen batzurekin eta kasu batzutan laburtuta edota datu gutxi batzu erantsiz. Euskaltegi gehiago ere badago, baina garrantzi gutxiagokoak dira eta ezin hemen guzti-guztien berri zehatzik eman. Hemen ageri direnez gain Gasteizko Udaberria euskaltegiak eta Elkarlanek ez digute informaziorik bidali. Elkarlan Bilboko lau euskaltegi homologatu biltzen duen elkarte da: Bilbo Zaharra (1972an sortua eta 1982 arte AEKn ibilia), Gabriel Aresti (1976an sortua eta 1984 arte AEKn), Juan Mateo Zabala (1981ean sortua eta 1983 arte AEKn), Ulibarri (sarreran aipatua) eta garai bateko Zubibarri (1978an sortua, 1984 arte AEKko partaide izana eta 88an desagertua). Bai Elkarlan bai Udaberria Bertan euskaltegi homologatuen federazioko kide dira.

3.- Ihardunaldi horien txostenak *Jakin* aldizkariak argitaratu zituen 59. zenbakian.

4.- Bertan Euskaltegi Homologatuen Federakuntza aurten sortu da. Euskal Autonomi Elkarteko euskaltegi homologatuen erdia baino gehiago biltzen du. AEK eta IKAREN euskaltegi homologatuak ez dira Bertan-eko partaide.

Joxe Jabier Iñigo
EKBko Idazkari Tekniko eta Euskalduntze Alfabetatze Saileko kordinatzailea